

## EGOITZA-BAIMENAK ETA GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Panoramika honetan, hainbat datu berraztertu nahi ditugu, EAEn bizi diren atzerritarren egoitza-baimenei eta Gizarte Segurantzako afiliazioari dagozkienak. Aurre egin nahi diegu bertako biztanleek atzerritarren irregulartasun administratiboaz eta lan-irregulartasunaz askotan dituzten ideiei. Datuok, ordea, erakusten digute atzerritar gehienak legezko egoeran daudela eta Gizarte Segurantzaz afiliatuta daudela; haien jardura-tasa bertakoen jardura-tasa baino 20 puntu handiagoa da. Ziurrenik, datu horiekin ezingo diegu jendearen ideiei aurre egin, baina saiatu egin behar gara.

Panoramika honetan EAEn bizi diren atzerritarren erroldatzeek eta egoitza-baimenek izandako bilakaeraren datuak aurkeztuko ditugu, eta baita Gizarte Segurantzako afiliazioaren daturik garrantzitsuenak ere, 2007ko abenduaren 31koak.

### 1. taula. Erroldatuak eta egoitza-baimenen eta Giz. Seg. afiliatuak bilakaera EAEn. 1998-2007

	Erroldatuak		Egoitza-baimenak		Giz. Seg. afiliatuak	
	K	Zk. indizea	K	Zk. indizea	K	Zk. indizea
1998	15.130	100	15.647	100		
1999	16.557	109	16.995	109	5.181	100
2000	21.140	140	18.622	119	6.575	127
2001	27.438	181	18.822	120	8.688	168
2002	38.408	254	19.515	125	11.787	228
2003	49.231	325	24.201	155	15.576	301
2004	59.166	391	28.600	183	19.371	374
2005	72.894	482	37.150	237	22.359	432
2006	85.542	565	57.395	367	35.747	690
2007	98.524	651	64.228	410	39.347	759
07-12-31			83.875	536	46.992	907

Iturria: EInko, Barne Ministeritzako eta Gizarte Segurantzako datuak

2007ko urtarrilaren 1ean, 98.524 atzerritar zeuden EAEn erroldatuta, EInren arabera. Eustaten arabera, gutxiago dira, zehazki 95.313, baina 2006ko azaroaren 1eko datuak dira. Egoitza-baimenei dagokierenez, 2007ko abenduaren 31n, 83.875 lagunek zuten halakorik EAEn. Data horretan, 46.992 lagun zeuden Gizarte Segurantzaz afiliatuta.

Bilakaeraren datuei begiratzen badiegu (1. taula), zenbaki indizean adierazita Gizarte Segurantzaren ehunekoak handitu da gehien azken urteotan: immigrazioa sei eta erdi bider handitu da; egoitza-baimenak, bost bider baino gehiago, eta Gizarte Segurantzako afiliatuak, bederatzid bider baino gehiago.


### 2. taula. Erroldatuak eta egoitza-baimenen bilakaera EAEn. 1998-2007

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	07-12-31
Erroldatuak	15.130	16.557	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	
Egoitza-baimenak	15.647	16.995	18.622	18.822	19.515	24.201	28.600	37.150	57.395	64.228	83.875
Egoitza-tasa	103,4	102,6	88,1	68,6	50,8	49,2	48,3	51,0	67,1	65,2	

Iturria: EInko eta Barne Ministeritzako datuak

2. taulan, erroldatzeen eta egoitza-baimenen datuak bakarrik aztertu ditugu, legezotasun-tasa ideala izan zitekeena lortzeko. 1998an, egoitza-baimen gehiago zegoen erroldatze baino, eta, 2004an, atzerritarren %48,3 bakarrik zegoen legezko egoeran; 2007ko urtarrilean, %65,2 da. 2007an 19.647 lagun gehiagok eskuratu du egoitza-baimena, termino absolutuetan. Hazkuntza horrek barne hartzen ditu erumaniarrak eta bulgariarrak, komunitarioak dagoeneko. Termino erlatiboetan, legezkatze-ehunekoan gertatu den hazkuntza hori %85,1 litzateke, 2007ko urtarrilaren 1eko kopurua erreferentziaz hartzen badugu; edo, aurreikuspen bat eginez, %75 inguru, 2008ko urtarrilaren 1ean 110.000 lagun zegoela estimatuz.

### 1. grafikoa. Egoitza-baimenak lurralde historikoen arabera. 2008



Iturria: Barne Ministeritzako datuak

**3. taula Egoitza-baimenen bilakaera, arabide motaren arabera, 2007ko abenduaren 31ra arte**

	1998	1999	2002	2003	2004	2005	2006	2007
<b>Guztira</b>	16.995	18.622	24.201	28.600	37.150	57.395	64.228	83.875
Erregimen komunitarioa	15.706	17.351	11.989	14.230	15.626	18.281	20.325	33.808
Erregimen orokorra	1.289	1.271	12.212	14.370	21.524	39.114	43.903	50.067
<b>%</b>								
Erregimen komunitarioa	92,4	93,2	49,5	49,8	42,1	31,9	31,6	40,3
Erregimen orokorra	7,6	6,8	50,5	50,2	57,9	68,1	68,4	59,7
<b>Orokorra</b>	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EInko eta Barne Ministeritzako datuak

3. taulan ikus dezakegu aztertutako epe horretan zehar nola aldatu diren egoitza-baimenen ehunekoak erregimen-motaren arabera, izan Europako Batasuneko zein orokorra. Atzerritarrak gero eta leku gehiagotatik etorri dira eta Europako Batasuneko atzerritarrak gero eta gutxiago ziren; horren ondorioz, erregimen orokorra %68,4 zen 2006. urtearen amaieran. Gero, Europako Batasuneko erregimenaren ehuneko handitu egin zen, 2007aren hasieran errumaniarren eta bulgariarren estatus-aldaketa gertatu baitzen eta orain Europako Batasuneko hiritartzat hartzen baitira. Horrez gain, interesgarria da ikustea oro har nola aldatu den egoitza-baimenaren mota; izan ere, gero eta egonkorragoa da (4. taula).

**4. taula Erregimen orokorreko baimenen moten bilakaera. 2007ko abenduaren 31ra arte**

	1998	1999	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Hasierakoa	58,5	70,2	35,8	23,4	21,2	40,1	14,4	16,4
Lehen berritzea	11,6	12,3	14,2	34,6	29,5	17,9	45,4	40,7
Bigarren berritzea	0,0	0,0	23,5	12,2	14,9	18,5	14,6	12,2
Iraunkorra	10,2	14,9	24,8	28,7	30,2	19,1	24,5	28,5
Besteak	19,8	2,6	1,7	1,2	4,6	4,4	1,1	2,3
Erregimen orokorra	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EInko eta Barne Ministeritzako datuak

Aztertutako epean, lehen urteetan, hasierako egoitza-baimenen ehuneko askoz handiagoa da, baina urteak aurrera joan ahala, atzerritarren %16,4k baino ez du mota horretako egoitza-baimena; atzerritarren %52,9k berritu du, eta %28,5ek egoitza-baimen iraunkorra du. Hau da, denbora aurrera joan ahala, gero eta gehiago dira atzerritarrari egonkortasun juridiko handiagoa ematen dioten baimenak.

2007ko abenduaren 31ko baimenen egoera aztertzen badugu, lurralde historikoen arabera sailkatuta (5. taula), ikusiko dugu baimena dutenen %50,1 Bizkaian daudela; %27,9, Gipuzkoan, eta %22 Araban. Lurraldeen artean desberdintasun nabarmenak daude;

**5. taula. Egoitza-baimenak mota eta modalitateen arabera sexua eta lurralde historikoak kontuan harturik. 2008**

	Sexua			Baimen-mota		Modalitatea				
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Komunitarioa	Orokorra	Hasierakoa	1. berritzea	2. berritzea	Iraunkorra	Besteak
EAE	83.875	45.343	38.532	33.808	50.067	8.189	20.359	6.094	14.249	1.176
Araba	18.456	10.407	8.049	5.630	12.826	2.262	3.982	2.142	4.215	225
Gipuzkoa	23.391	12.524	10.867	10.110	13.281	2.992	5.645	1.186	3.280	178
Bizkaia	42.028	22.409	19.619	18.068	23.960	2.935	10.732	2.766	6.754	773
<b>%</b>										
EAE	100	54,06	45,94	40,3	59,7	16,4	40,7	12,2	28,5	2,3
Araba	22,0	56,39	43,61	30,5	69,5	17,6	31,0	16,7	32,9	1,8
Gipuzkoa	27,9	53,54	46,46	43,2	56,8	22,5	42,5	8,9	24,7	1,3
Bizkaia	50,1	53,32	46,68	43,0	57,0	12,2	44,8	11,5	28,2	3,2

Iturria: EInko eta Barne Ministeritzako datuak

horrek erakusten du immigrazioaren barne-osaera eta, hein handi batean, zein urtetan etorri ziren.

Azkenik, egoitza-baimenak moten arabera sailkatuta, ikusten dugu 2007ko amaieran Araban bizi zirela egoitza-baimen iraunkorra zuten etorkin gehienak (%32,9) eta EBko baimena zutenen ehunekorik txikiena (%30,5). Beste muturrean, Gipuzkoa dago, %24,7k baimen iraunkorra baitu eta %43,2k, EBko baimena. Bizkaiko egoera hurbilago dago EAEko egoeraren batez bestekotik eta Gipuzkoako egoeraren antz handiagoa du, baina, Gipuzkoan dago hasierako egoitza-baimena duten etorkinen ehuneko handiena: %22,5 (5. taula).

Laburpen gisa, gero eta handiagoa da egoitza-baimena duten atzerritarren kopurua eta baimen hau erabakigarria da atzerritarrak lanean txertatzeko eta gizarteratzeko. Halaber, gure artean zenbat eta denbora gehiago egon, baimenak orduan eta finkatze handiagoa izango du; atzerritarrak orduan eta lan- eta gizarte-egonkortasun handiagoa izango du, eta, hala, egonkortasun-continuum moduko bat sortzen da; horren bi muturrak dira, batetik, errolatuta ez egotea eta, bestetik, egoitza-baimen iraunkorra izatea edota herritartasuna hartzea.

**Gizarte Segurantzako afiliazioak**

Gizarte Segurantzako afiliatuengan eta egoitza-baimena duten atzerritarren bilakaeran oinarrituta -1. eta 2. taulak- tasa bat egin dugu eta, kontu handiz begiratu behar badiogu ere, immigrazioa poliki normaltzen ari dela erakusten du, immigrante gehienak legez kanpoak direla eta gure ongizate-zerbitzuei esker irauten dutela irudikatzen duten ikuspegiaren aurrean (6. taula).

Afiliazio-tasa horiek egiteko, 16 eta 64 urte bitartean eta egoitza-baimena duten lagunengan oinarritu gara, populazio-talde horren barruan baitaude lanean egon daitezkeen lagunak. Hala, ikusten dugu 1999an atzerritarren %37,1 Gizarte Segurantzara afiliatuta zegoela; 2007aren amaieran, berriz, ehuneko hori %64,2 da, hots, hirutik bi. Baina horretaz gain esan beharra daukagu aurreko urteetan afiliazio-tasa handiagoa izan dela, esate baterako, %79,9 2004an; 2007an, jaitsi egin zen, legeztertutako etorkin-kopuruak nabarmen egin duelako gora bulgariarrek eta errumaniarrek egindako ekarpenagatik: orain egoitza-baimena dute, baina autonomoen erregimenean afiliatuta soilik sar daitezke Gizarte Segurantzara.

Are gehiago, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera (BAI), 16 eta 64 urte bitarteko 55.209 atzerritarren artean (2007ko urtarillaren 1ean errolatuta), 49.400 lanean ari ziren, eta horrek erakusten du adin-multzorik horretako %90 lanean ari dela. Horrez gain, une hartan Gizarte Segurantzara 35.747 lagun afiliatuta zeudela kontuan har-

6. taula. Atzerritar egoiliar aktiboek daukaten Gizarte Segurantzako afiliazio-tasen bilakaera. 1998-2007

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	07-12-31
Erroldatuak	15.130	16.557	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	
Egoitza-baimenak	15.647	16.995	18.622	18.822	19.515	24.201	28.600	37.150	57.395	64.228	83.875
Gizarte Segurantzako afiliazioak		5.181	6.575	8.688	11.787	15.576	19.371	22.359	35.747	39.347	46.992
16 eta 64 urte arteko baimenduak	12.763	13.953	15.443	15.812	16.537	20.730	24.239	31.707	49.803	55.209	73.143
Populazio aktiboaren gaineko afiliazio-tasa		37,1	42,6	54,9	71,3	75,1	79,9	70,5	71,8	71,3	64,2
Erroldatuen gaineko afiliazio-tasa		31,3	31,1	31,7	30,7	31,6	32,7	30,7	41,8	39,9	

Iturria: Gizarte Segurantzako datuak

7. taula. Bertako eta atzerritar populazioaren lan-egoera Espainian. 2007ko 4. lahilekoa

	Espainiarrak	Atzerritarak	Guztira
Aktiiboak	19.109.700	3.294.700	22.404.400
Okupatuak	17.589.900	2.887.000	20.476.900
Langabeak	1.519.900	407.700	1.927.600
Ez-aktiboak	14.413.300	1.079.000	15.492.300
16 urtetik gorakoak	33.523.100	4.373.800	37.896.900
Jarduera-tasa	57,0	75,3	59,1
Enplegu-tasa	52,5	66,0	54,0
Langabezia-tasa	8,0	12,4	8,6

Iturria: BAIko datuak

tzen badugu, lanean ari zirenen arteko eta Gizarte Segurantzako afiliatuta zeuden arteko aldea 10.053 laguneko zen; beraz, zehaztasun handiz, kalkula dezakegu atzerritarren kopuru nabarmenak diharduela ezkutuko ekonomian.

Gizarte Segurantzako datuetara joz, 2007ko abenduaren 31an, 46.992 lagun zeuden Gizarte Segurantzako afiliatuta; horietatik, 16.339 Europako Batasunekoak ziren (%34,8), eta gainerakoak, 30.653, EBtik kanpokoak (%65,2). Sexuen arabera banatuta, %62,4 gizonak ziren eta %37,6 emakumeak. Baina EBtik kanpoko emakumeak %44,8 dira; EBko emakumeak, berriz, %24,1. Desberdintasun horrek erakusten du europarrak ez diren emakume gehiagok dihardutela zerbitzu pertsonaletan eta etxeko lanetan (9. taula). Ikusten dugu etxeko erregimenera afiliatutakoen artean %7,8 soilik datorrela EBko estatuetatik, eta %92,2, EBkoak ez diren estatuetatik.

Erregimenaren arabera (8. taula), ia %70 Erregimen Orokorrean afiliatuta dago; gainerakoak erregimen autonomoan (%13,9), etxeko erregimenean (%11,8), nekazaritza-erregimenean (%3,9) eta itsas erregimenean (%0,5) banatzen dira. Afiliazio-erregimenari dagokionez, 34.364 lagun Erregimen Orokorrean afiliatuta daude. Horren azpitik, autonomoak daude -6.614- eta etxeko erregimena dutenak -5.495-; azken horretan, ia-ia EBkoak ez diren atzerritarak soilik daude. Afiliatu guztien %24,1 Araban dago; %34, Gipuzkoan eta %41,9, Bizkaian (9. taula).

Jarduera sektoreen arabera (10. taula), eraikuntzak Gizarte Segurantzako afiliatutako atzerritarren laurdena hartzen du (%26,2); ondoren datoz ostalaritza (%15,9), manufaktura-industriak (%14,4), ondasun higiezinak (%12,3) eta merkataritza eta ibilgailuen konponketa (%13,0), eta garrantzi eskasagoko beste batzuk.

Nazionalitateka (11. taula), lehenik eta behin, Portugal dugu -bosgarren nazionalitatea erroldatuei dagokionez-, 6.019 afiliaturekin, hots, afiliazio guztien %12,8. Jarraian, Kolonbia (%12,6), Errumania (%9,9), Ekuador (%9,5) eta Maroko (%7,8) ditugu. Erregimen

8. taula. Gizarte Segurantzako atzerritarren afiliazioa EAEn erregimenaren arabera. 07-12-31

	Orokorra	Autonomoak	Nekazaritza	Itsasoa	Ikatz	Etxea	Guztira
EB guztira	10.732	3.960	1.098	120	0	429	16.339
EB kanpo guzt.	22.130	2.583	742	98	0	5.100	30.653
Guztira	32.862	6.543	1.840	218	0	5.529	46.992
Erregimenen banaketa jatorriaren arabera (% bertikalak)							
EB guztira	32,7	60,5	59,7	55,0	-	7,8	34,8
EB kanpo guzt.	67,3	39,5	40,3	45,0	-	92,2	65,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	-	100,0	100,0
Erregimenen banaketa jatorriaren arabera (% horizontalak)							
EB guztira	65,7	24,2	6,7	0,7	-	2,6	100,0
EB kanpo guzt.	72,2	8,4	2,4	0,3	-	16,6	100,0
Guztira	69,9	13,9	3,9	0,5	-	11,8	100,0

Iturria: Gizarte Segurantzako datuak

Orokorra gehiengoa da nazionalitate nagusien artean, kasu guztietan %50 gainditzen baitu, eta kasu askotan, %70 ere bai.

Gainontzeko erregimenei dagokienez, autonomoak garrantzi handiagoa du errumaniarren, txinatarren, frantsesen, italiarren, britainiarren eta alemaniarren artean, beste nazionalitateen artean baino. Errumaniarrak Europako hiritarrak dira 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, baina hainbat muga dituzte lan-baimenei dagokionez; izan ere, autonomo gisa soilik egin dezakete lan. Txinatarren kasuan, merkataritzarekin eta ostalaritzarekin zerikusia duten jardueren garrantziak azaltzen du autonomoan kopuru handi hori. Nekazaritza-erregimena, oro har, ez du garrantzi handirik afiliatuen artean, portugaldarren kasuan salbu. Halaber, arrantza-erregimena ez da ohikoa. Azkenik, etxeko erregimenaren kasuan, ehuneko txikia da, latinoamerikarren artean izan ezik: Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Peru, Brasil edo Kuba.

9. taula. Gizarte Segurantzako afiliatutako atzerritarrek EAEn, erregimenaren eta lurralde historikoaren arabera. 2007-12-31

		Orokorra	Autonomoak	Nekazaritza	Itsasoa	Ikatz	Etxea	Guztira
EB	Araba	7,1	8,1	42,0	0,0	-	1,2	7,9
	Gipuzkoa	13,3	26,5	4,2	27,1	-	2,0	13,5
	Bizkaia	12,3	26,0	13,5	28,0	-	4,6	13,4
	Guztira	32,7	60,5	59,7	55,0	-	7,8	34,8
EB ez	Araba	18,3	9,8	8,0	0,0	-	14,4	16,2
	Gipuzkoa	20,7	11,8	10,9	9,6	-	33,3	20,5
	Bizkaia	28,3	17,8	21,5	35,3	-	44,6	28,5
	Guztira	67,3	39,5	40,3	45,0	-	92,2	65,2
Guztira	Araba	25,4	17,9	49,9	0,0	-	15,5	24,1
	Gipuzkoa	34,0	38,3	15,1	36,7	-	35,3	34,0
	Bizkaia	40,6	43,8	35,0	63,3	-	49,2	41,9
	Guztira	100	100	100	100	-	100	100

Iturria: Gizarte Segurantzako datuak

10. taula. Gizarte Segurantzaren afiliatutakoak EAEn, jarduera-sektorearen arabera. 2007-12-31



	Erregimen Orokorra						Autonomoak						Guztira	Guztira %
	EB		EB kanpo		Guztira		EB		EB kanpo		Guztira			
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%		
Nekazaritza/Abeltzaintza	66	0,2	126	0,3	192	0,5	108	0,3	17	0,0	125	0,3	317	0,8
Arrantza	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Erauzketa-industriak	12	0,0	15	0,0	27	0,1	0	0,0	0	0,0	0	0,0	27	0,1
Manufaktura-industriak	1.808	4,6	3.624	9,2	5.432	13,8	176	0,4	81	0,2	257	0,7	5.689	14,4
Energia-ekoizpena	15	0,0	5	0,0	20	0,1	0	0,0	1	0,0	1	0,0	21	0,1
Eraikuntza	3.308	8,4	4.187	10,6	7.495	19,0	2.302	5,8	541	1,4	2.843	7,2	10.338	26,2
Merkataritza, ibilgailuak konpontzea	1.040	2,6	2.947	7,5	3.987	10,1	353	0,9	778	2,0	1.131	2,9	5.118	13,0
Ostalaritza	950	2,4	4.466	11,3	5.416	13,7	182	0,5	650	1,6	832	2,1	6.248	15,9
Garraioa, biltegiak...	890	2,3	737	1,9	1.627	4,1	199	0,5	140	0,4	339	0,9	1.966	5,0
Finantza-bitartekotza	30	0,1	91	0,2	121	0,3	2	0,0	8	0,0	10	0,0	131	0,3
Ondasun higiezinak	1.123	2,8	3.255	8,3	4.378	11,1	311	0,8	163	0,4	474	1,2	4.852	12,3
Administrazio publikoa, defentsa...	59	0,1	245	0,6	304	0,8	0	0,0	0	0,0	0	0,0	304	0,8
Hezkuntza	834	2,1	345	0,9	1.179	3,0	174	0,4	47	0,1	221	0,6	1.400	3,6
Osasuna, albaitaria eta gizarte-zerbitzuak	211	0,5	1.263	3,2	1.474	3,7	57	0,1	41	0,1	98	0,2	1.572	4,0
Beste gizarte-jarduerak, zerbitzu pertsonalak	376	1,0	803	2,0	1.179	3,0	94	0,2	116	0,3	210	0,5	1.389	3,5
Etxeko langileak erabiltzen dituzten etxeak	3	0,0	21	0,1	24	0,1	1	0,0	0	0,0	1	0,0	25	0,1
Lurraldetik kanpoko erakundeak	7	0,0	0	0,0	7	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	7	0,0
Saillatu ezin diren jarduerak	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	0,0	0	0,0	1	0,0	1	0,0
<b>Guztira</b>	<b>10.732</b>	<b>27,2</b>	<b>22.130</b>	<b>56,2</b>	<b>32.862</b>	<b>83,4</b>	<b>3.960</b>	<b>10,0</b>	<b>2.583</b>	<b>6,6</b>	<b>6.543</b>	<b>16,6</b>	<b>39.405</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Gizarte Segurantzako datuak

11. taula. Atzeritarren afiliazioa EAEn, sektorearen eta nazionalitatearen arabera. 2007-12-31

	Orokorra		Autonomoak		Nekazaritza		Itsasoa		Etxea		Guztira	Guztira
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
<b>EUROPAR BATASUNA</b>												
Portugal	4.069	67,6	935	15,5	863	14,3	105	1,7	47	0,8	6.019	12,8
Errumania	2.368	50,8	1.771	38,0	190	4,1	1	0,0	332	7,1	4.662	9,9
Frantzia	1.138	71,5	435	27,3	7	0,4	7	0,4	4	0,3	1.591	3,4
Italia	771	78,8	200	20,4	3	0,3	0	0,0	4	0,4	978	2,1
Erresuma Batua	555	72,4	203	26,5	4	0,5	2	0,3	3	0,4	767	1,6
Alemania	501	76,5	153	23,4	0	0,0	1	0,2	0	0,0	655	1,4
Bulgaria	320	77,3	47	11,4	14	3,4	0	0,0	33	8,0	414	0,9
Polonia	344	91,5	23	6,1	2	0,5	3	0,8	4	1,1	376	0,8
Irlanda	139	72,4	53	27,6	0	0,0	0	0,0	0	0,0	192	0,4
Herbehereak	99	75,0	31	23,5	2	1,5	0	0,0	0	0,0	132	0,3
Belgika	86	75,4	27	23,7	1	0,9	0	0,0	0	0,0	114	0,2
Lituania	67	67,7	26	26,3	3	3,0	1	1,0	2	2,0	99	0,2
Txekiar Errepublika	51	85,0	5	8,3	4	6,7	0	0,0	0	0,0	60	0,1
<b>EUROPAR BATASUNETIK KANPO</b>												
Kolonia	4.114	69,2	332	5,6	36	0,6	1	0,0	1.460	24,6	5.943	12,6
Ekuador	2.967	66,6	208	4,7	227	5,1	4	0,1	1.052	23,6	4.458	9,5
Maroko	3.009	82,4	296	8,1	201	5,5	10	0,3	137	3,8	3.653	7,8
Bolivia	995	58,9	42	2,5	33	2,0	1	0,1	619	36,6	1.690	3,6
Txina	993	59,3	574	34,3	1	0,1	0	0,0	106	6,3	1.674	3,6
Peru	1.212	75,2	58	3,6	19	1,2	16	1,0	306	19,0	1.611	3,4
Argentina	851	79,3	159	14,8	4	0,4	0	0,0	59	5,5	1.073	2,3
Brasil	725	76,8	81	8,6	3	0,3	0	0,0	135	14,3	944	2,0
Aljeria	698	86,1	43	5,3	38	4,7	2	0,2	30	3,7	811	1,7
Kuba	579	77,1	79	10,5	4	0,5	4	0,5	85	11,3	751	1,6
EBtik kanpoko gainerako herrialdeak	5.987	74,4	711	8,8	176	2,2	60	0,7	1.111	13,8	8.045	17,1
<b>EB GUZTIRA</b>	<b>10.732</b>	<b>65,7</b>	<b>3.960</b>	<b>24,2</b>	<b>1.098</b>	<b>6,7</b>	<b>120</b>	<b>0,7</b>	<b>429</b>	<b>2,6</b>	<b>16.339</b>	<b>34,8</b>
<b>EB KANPO GUZTIRA</b>	<b>22.130</b>	<b>72,2</b>	<b>2.583</b>	<b>8,4</b>	<b>742</b>	<b>2,4</b>	<b>98</b>	<b>0,3</b>	<b>5.100</b>	<b>16,6</b>	<b>30.653</b>	<b>65,2</b>
<b>Atzeritar-kopurua</b>	<b>32.862</b>	<b>69,9</b>	<b>6.543</b>	<b>13,9</b>	<b>1.840</b>	<b>3,9</b>	<b>218</b>	<b>0,5</b>	<b>5.529</b>	<b>11,8</b>	<b>46.992</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Gizarte Segurantzako datuak

 <p>ikuspegi Immigrazioaren Erakunde Nazionala Departamento Vasco de Inmigración</p> 	<p>EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsulta ezazu gure web orria: <a href="http://www.ikuspegi.org">www.ikuspegi.org</a></p> <p>Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:                  - <b>Dokumentazio zentrua:</b> kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua eskeintzen ditu.                  - <b>Informazio estatistikoa.</b></p>	<p><b>Gurekin harremanetan jartzeko:</b>                  Tfí.: 94 601 82 75                  Fax: 94 402 35 40                  e-mail: <a href="mailto:info@ikuspegi.org">info@ikuspegi.org</a></p> <p><b>Postaz eta pertsonalki</b> helbide honetan aurki gaitzakezu:                  Alameda Mazarredo 39, 4.C., 48009 Bilbo - Bizkaia</p>
---	---	---